DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak
Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**28. AKTA**

**<u>Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak</u>**

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2022-02-14

**Ordua:** 12:29 h

**Tokia:** Udalbatza aretoa

**Batzordeburua**: Miguel Angel Díez Bustos

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Maria Jesus Idoeta Madariaga

Pilar Arana Pérez

Nekane Arzallus Iturriza

Olaia Duarte Lopez

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego

Ane Oyarbide Ochoa

Jorge Mota Iglesias

Haizea Garay Gallastegui *(12:53an bileratik joan da eta 13:10ean sartu da berriro)*

**Beste zinegotzi batzuk:**

Marta Huarte Paño *(12:43an bertaratu da, eta 4. eta 8. gaiak batera aztertu ondoren joan da; 13:05ean sartu da berriro eta 10:30etan bileratik irten da)*

Zigor Etxeburua Urbizu *(12:48an bileratik joan da eta 13:26an itzuli da)*

Ricardo Burutaran Ferré *(13:04an bertaratu eta 13:07an bileratik irten da)*

Duñike Agirrezabalaga Ugarte *(13:31ean bertaratu eta 13:39an bileratik irten da)*

**ACTA N.º 28**

**<u>Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos</u>**

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 14-02-2022

**Hora:** 12:29 h

**Lugar:** Salón de Plenos

**Preside:** Miguel Ángel Díez Bustos

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

María Jesús Idoeta Madariaga

Pilar Arana Pérez

Nekane Arzallus Iturriza

Olaia Duarte López

Garbiñe Alkiza López de Samaniego

Ane Oyarbide Ochoa

Jorge Mota Iglesias

Haizea Garay Gallastegi *(se retira de la sesión a las 12:53 h y se reincorpora a la sesión a las 13:10 h)*

**Otros/as concejales/as:**

Marta Huarte Paño *(se incorpora a la sesión a las 12:43 h y la abandona tras el tratamiento conjunto de los asuntos n.º 4 y n.º 8; se reincorpora a la sesión a las 13:05 h y a las 13:30 h la abandona)*

Zigor Etxeburua Urbizu *(se retira a las 12:48 h y se reincorpora a la sesión a las 13:26 h)*

Ricardo Burutaran Ferré *(se incorpora a la sesión a las 13:04 h y la abandona a las 13:07 h)*

Duñike Agirrezabalaga Ugarte *(se incorpora a la sesión a las 13:31 h y se retira a las 13:39 h)*

12447n II

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga *(Bozeramaileen Batzordeak bidalitako laugarren ekimena aztertzeko bertaratu da eta gaia aztertu ondoren joan da)*

*Eneko Goia Laso Alkate jn. (13:42an bertaratu da eta 13:52an joan da)*

Aitziber San Román Abete *(7. gaia aztertzeko bertaratu da eta gaia aztertu ondoren joan da)*

Aitzole Araneta Zinkunegi *(13:52an bertaratu da bilerara eta 14:11n joan da bileratik)*

**Beste zinegotzi batzuk:**

Jose Ramon Renilla Gonzalez, Hiri Mantentze eta Zerbizuetako zuzendaria *(12:41ean bileratik joan da)*

**Idazkaria:** Ana Pérez Galarraga, Idazkariak eskuordeturik.

-----------

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

**1.- 2022ko urtarrilaren 17an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 27. akta, 2022ko urtarrilaren 17an egindako bilerari dagokiona.

* * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak gaien ordena aldatzea erabaki du eta, ondoren, 7., 19.8. (Bozeramaileen batzordeak bidalitako zortzigarren ekimena) eta 10. gaiak aztertu dira, hurrenkera horretan.

* * *

*(Aitziber San Román andrea bertaratu da 7. gaia aztertzeko)*

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga *(se incorpora a la sesión para el tratamiento de la cuarta de las inciativas remitidas por la Junta de Portavoces y se retira tras el tratamiento del asunto)*

El Alcalde, Eneko Goia Laso *(se incorpora a la sesión a las 13:42 h y la abandona a las 13:52 horas)*

Aitziber San Román Abete *(se incorpora a la sesión para el tratamiento del asunto n.º 7 y se retira tras el tratamiento del asunto)*

Aitzole Araneta Zinkunegi *(se incorpora a la sesión a las 13:52 horas y la abandona a las 14:11 h)*

**Otros/as concejales/as:**

José Ramón Renilla González, director de Mantenimiento y Servicios Urbanos *(abandona la sesión a las 12:41 h)*

**Secretaria:** Ana Pérez Galarraga, por delegación del Secretario.

------------

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 17 de enero de 2022.**

Se aprueba por unanimidad el acta número 27, correspondiente a la sesión celebrada el día 17 de enero de 2022.

* * *

Con la conformidad de todos los y las presentes, el Presidente decide alterar el orden de tratamiento de los asuntos y a continuación se pasan a tratar, en este orden, los asuntos n.º 7, n.º 19.8 (octava iniciativa de las remitidas por la Junta de Portavoces) y el asunto n.º 10.

* * *

*(La Sra. San Román Abete se incorpora a la sesión para el tratamiento del asunto n.º 7)*

**Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Kontxa eta Ondarretako aldagelen itxiera dela eta.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

"Olaia Duarte Lópezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso, alkateari, Gune Publikoen Batzordean erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilaren 25eko Tokiko Gobernu Batzordeak Donostiako hondartzetako kabina kolektiboen kudeaketa zerbitzu kontratua osoki etetea erabaki zuen. Ondoren, urtarrilaren 27an, honako ohar hau argitaratu zen Udaleko web orrialdean: Kontxa eta Ondarreta hondartzetako kabinek ateak itxiko dituzte otsailaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean eraberritzeko; beraz, herritarrei eskaintzen dieten zerbitzua bertan behera geratuko da.

Otsailaren 1ean, Arrats elkarteak salatu du, dutxen itxieraren ondorioz, etxerik gabeko pertsonak garbitzeko lekurik gabe gelditu direla, Udaletik beste alternatibarik ez delako eskaini.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

• Zer dela ez zaie alternatibarik planteatu Ondarreta eta Kontxako dutxak erabiltzen dituzten etxerik gabeko pertsonei?

• Zer egingo dute pertsona hauek maiatzera arte, dutxa publikoak erabiltzeko aukerarik gabe?

Donostian, 2022ko otsailaren 4an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Aitziber San Roman andreak eta Olaia Duarte andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(Aitziber San Román andrea joan da bileratik)*

**Agerraldi eskaera, EH BILDU taldeak aurkeztua, Hiri Mantentze eta Zerbitzuen zuzendari,**

**Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el cierre de los vestuarios de la Kontxa y Ondarreta.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene a bien presentar la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

La Junta de Gobierno Local de 25 de enero acordó la suspensión total del contrato de servicios de gestión de las cabinas colectivas de las playas de Donostia. Posteriormente, el 27 de enero se publicó en la página web del Ayuntamiento la siguiente nota: Las cabinas de las playas de La Concha y Ondarreta cerrarán las puertas para su reforma entre el 1 de febrero y el 31 de mayo, por lo que se suspenderá el servicio que se presta a la ciudadanía.

El 1 de febrero, la asociación Arrats denuncia que debido al cierre de duchas se han quedado sin espacio para el aseo de las personas sin hogar, ya que no se han ofrecido otras alternativas desde el Ayuntamiento.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

• ¿Cuál es el motivo por el que no se haya planteado ninguna alternativa a las personas sin hogar que utilizan las duchas de Ondarreta y La Concha?

• ¿Qué harán estas personas hasta mayo sin la posibilidad de utilizar duchas públicas?

Donostian, 2022ko otsailaren 4an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Intervienen las Sras. San Román Abete y Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(La Sra. San Román Abete abandona la sesión)*

**Solicitud de comparecencia, presentada por el Grupo EH BILDU, del director de Servicios**

**<u>Herrerako pasealekuan, (sic) izeneko proiektua azaltzeko eta argitzeko.</u>**

Zigor Etxeburua jaunak honako agerraldi eskaera hau aurkeztu du:

“2021eko urriaren 13ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu egin zuen “Herrerako pasealekuan, 49tik 71ra, Harria Parkearen ondoan (Pikabea), hobetzeko (sic)” izeneko proiektua. Proiektuak 341.656,74 €-ko aurrekontua barneratzen du, BEZa barne (Z.O. 282.360,94 € + 59.295,80 € %21eko BEZarenak) eta 4 hilabeteko exekuzio epea aurreikusi du.

Eremu hori Arriaga parkearen perimetroan dago, eta auto askok aparkatzen du bertan, azken urteotan goia jotzeraino, disuasio aparkaleku gisa ere erabiltzen baitute auzotik kanpoko herritar askok. Autoz gainezka eta aparkalekua ordenatu gabe egotearen ondorioz, oinezkoentzako beharko luketen tokietan ere aparkatzen dute autoek, etxeenak diren lursailetan edo ertzetan. Horrek eragin du Pikabea etxeko 39. atariko zorua behera etortzea. Hain zuzen, hori bera beraien lursailean gertatzea saihesteko, 41., 51. eta 53. atarietako bizilagunek piboteak ezarri zituzten.

2021eko azaroan, batzordean galdetu genuen egitasmo horren inguruko zehaztapenak jasotzeko, artean ez baikenuen dokumentaziorik; erantzunak, ordea, ez ziren aski argigarriak izan. Orain, memoria eta planoak eskuratu ditugula, hainbat zalantza argitzea behar dugu.

AGERRALDI ESKAERA

Hori dela eta, EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk eskatzen du, indarrean den Udalbatzaren Araudi Organikoaren 136. artikuluari jarraiki, Hiri Mantentze eta Zerbitzuen zuzendari Jose Ramon Renilla Gonzalezek AGERRALDIA egin dezala Zerbitzu Orokorretako batzordean, azaltzeko eta argitzeko

• Zenbat autok aparkatzen duten gaur egun eta zenbat lortuko diren aldaketaren ostean.

• Zer zailtasun aurreikusi dituen Arriaga parkeko aparkalekua ordenatzerakoan.

• Zer irtenbide emango zaion behera etorrita

**<u>y Mantenimientos, para explicar y aclarar el proyecto denominado (sic) en el paseo de Herrera.</u>**

El Sr. Etxeburua Urbizu presenta la siguiente solicitud de comparecencia:

“La Junta de Gobierno Local de 13 de octubre de 2021 aprobó el proyecto de mejora del Paseo de La Herrera 49-71, junto al Parque de Harria (Pikabea). El proyecto cuenta con un presupuesto de 341.656,74 €, IVA incluido (282.360,94 € + 59.295,80 €, IVA 21 %) y un plazo de ejecución de 4 meses.

Esta zona, situada en el perímetro del parque Arriaga, es utilizada como aparcamiento por muchos vehículos, hasta alcanzar su máximo en los últimos años, ya que es utilizada también como aparcamiento disuasorio por parte de un gran número de habitantes de fuera del barrio. La ocupación masiva de vehículos y la falta de ordenación del aparcamiento hacen que se llegue a aparcar en lugares que deberían estar reservados a los peatones, así como en terrenos o márgenes de parcelas privadas. Esto ha provocado el hundimiento de la solera del portal 39 de la casa Pikabea, lo que a su vez ha llevado a los vecinos y vecinas de los portales 41, 51 y 53 a colocar pivotes frente a sus parcelas a fin de evitar que esto suceda en sus fincas.

En noviembre de 2021 preguntamos en comisión más detalles de este proyecto, ya que todavía no se disponía de documentación, pero las respuestas recibidas no fueron suficientemente aclaratorias. Ahora que hemos obtenido la memoria y a los planos, necesitamos aclarar algunas dudas.

SOLICITUD DE COMPARECENCIA

En consecuencia, Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, solicita, de conformidad con el artículo 136 del vigente Reglamento Orgánico del Pleno, la COMPARECENCIA del Director de Mantenimiento y Servicios Urbanos, José Ramón Renilla González, ante la Comisión de Servicios Generales, a fin de explicar y aclarar:

• El número de vehículos que estacionan actualmente en esta zona y cuántas plazas se obtendrán tras el cambio.

• Dificultades previstas en la ordenación del aparcamiento del parque Arriaga.

• Qué solución se le va a proporcionar al

dagoen Pikabea etxeko 39. atariko zoruari.

hundimiento del suelo del portal 39 de la casa Pikabea.

• Zinegotziak adierazi zuen ez dela desjabetzarik egin beharko. Orduan, nola egingo da oinezkoentzako bidearen eta etxeetako lursailen arteko mugapena eta uztarketa?

• La concejalía delegada señaló que no será necesaria expropiación alguna. En ese caso, ¿cómo se va a realizar la delimitación y confluencia del itinerario peatonal con los terrenos de estos edificios?

• Badira hainbat moto erabiltzaile, eta autoen arteko tarteetan uzten dituzte motoak. Horientzako tokirik gordeko da?

• También existen usuarios que aparcan sus motos entre los huecos de los coches. ¿Se va a reservar espacio para ellos?

• Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Sailak badu auzotarrei egitasmoa aurkezteko asmorik?

• ¿Tiene intención el Departamento de Mantenimiento y Servicios Urbanos de presentar el proyecto a los vecinos y vecinas?

Donostian, 2021eko uztailaren 2an

Donostian, 2021eko uztailaren 2an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Jose Ramon Renilla jaunak agerraldia egin du.

Comparece el Sr. Renilla González.

Jorge Mota jaunak, Zigor Etxeburua jaunak eta Jose Ramon Renilla jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen los Sres. Mota Iglesias, Etxeburua Urbizu y Renilla González, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:41ean Jose Ramon Renilla jauna bileratik joan da)*

*(A las 12:41 el Sr. Renilla González abandona la sesión)*

**Galdera, EH BILDU taldeak aurkeztua, Bidebieta-Herrera eta Herrera-Larratxo bidegorriak direla eta .**

**Pregunta, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los bidegorris de Bidebieta-Herrera y Herrera-Larratxo.**

Zigor Etxeburua jaunak honako galdera hau irakurritzat eman du:

El Sr. Etxeburua Urbizu da por leída la siguiente pregunta:

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikulua oinarri, galdera egiten dio Mugikortasuneko zinegotzi Pilar Aranari, Bidebieta-Herrera eta Herrera-Larratxo bidegorriak direla eta, azalpenak eman ditzan Gune Publikoen batzordean.

"Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, presenta, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, la siguiente pregunta a Pilar Arana, concejala de Movilidad, relativa a los bidegorris Bidebieta-Herrera y Herrera-Larratxo, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFIKAZIOA

Ekialdeko Barrutiak bi bidegorri diseinatzeko azterlanak agindu zituen 2019ko bere aurrekontuaren bidez: bata Herrera eta Larratxo auzoen artekoa, eta bestea Bidebieta eta Herrera auzoen artekoa.

2019ko abenduan, Barrutiko batzarrak onartu zuen Altza eta Bidebieta auzoetako bidegorrietako bat egitea. Akordioan proposatu zen lehentasuna ematea Herrera-Larratxoko bidegorriari,

JUSTIFICACIÓN

El Distrito Este encargó a través de su presupuesto de 2019 sendos estudios para el diseño de dos tramos de bidegorris: uno entre los barrios de Herrera y Larratxo, y otro entre los barrios de Bidebieta y Herrera.

En diciembre de 2019, la Junta de Distrito aprobó la construcción de uno de los bidegorris de los barrios de Altza y Bidebieta. En el citado acuerdo se propuso dar prioridad al bidegorri Herrera-

Bidebietakoa baino garestiagoa izan arren, eta Mugikortasuneko Sailaren irizpideekin bat zetorrelakoan. Edonola, 2020an, Barrutiaren aurrekontua blokeatu egin zuen Udal Gobernuak, Covid 19aren ondorioz hartutako erabakien harira, eta ez zen egin Herrera-Larratxo bidegorria. Urrian, Udal Gobernuak desblokeatu egin zuen aurrekontua, eta, azaroan, Barrutiko Egituraketa lantaldean EH Bilduk gogorarazi zuen betetzeke zegoela 2019ko abenduan Barrutiko batzarrak bidegorriaren inguruan adostutako akordioa, eta 2021eko egitasmoen artean sartu behar zela. Egituraketa lantaldean bat etorri ginen Herrera-Larratxo baino Bidebietako bidegorria lehenesten, Larratxokoak gabezia nabarmen bat zuelako: Larratxo auzoaren erdigunetik bidegorrira ez dagoela txirrindaz iristerik, noranzko bakarreko errepidea baita.

Larratxo, a pesar de ser más caro que el de Bidebieta. Asimismo, se consideraba que la propuesta coincidía con los criterios del Departamento de Movilidad. No obstante, en 2020 el presupuesto del distrito fue bloqueado por el Gobierno Municipal en virtud de las decisiones tomadas a raíz del Covid 19, por lo que este tramo de bidegorri Herrera-Larratxo no fue construido. En octubre, el Gobierno Municipal desbloqueó el presupuesto. Así, en noviembre EH Bildu recordó en el Grupo de Trabajo de Estructuras del Distrito Este que el acuerdo adoptado por la Junta de Distrito sobre el bidegorri en diciembre de 2019 seguía pendiente de cumplimiento y que debía ser incluido entre los proyectos de 2021. Así, en este Grupo de Trabajo de Estructuras se acordó priorizar el bidegorri de Bidebieta frente al de Herrera-Larratxo, ya que el bidegorri de Larratxo presentaba una carencia notable, que es que desde el centro del barrio de Larratxo no se puede acceder al bidegorri en bicicleta, por tratarse de una vía de sentido único.

Horiek horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako galderak egiten ditu:

Es por ello que el concejal que suscribe presenta las siguientes

GALDERAK

PREGUNTAS

• Noiz hasiko dira Bidebietako bidegorria egiteko lanak? Zenbat denbora iraungo dute?

• ¿Cuándo se va a dar comienzo a los trabajos de construcción del bidegorri de Bidebieta? ¿Cuánto tiempo durarán?

• Egingo al du Mugikortasuneko Sailak Larratxo auzoaren erdigunetik proiektatua dagoen Herrera-Larratxo bidegorriaren lotunerainoko tartea bizikletaz egiteko azterlana?

• ¿Va a realizar el Departamento de Movilidad el estudio para la conexión ciclista entre el centro del barrio de Larratxo y la conexión del bidegorri Herrera-Larratxo proyectado?

• Baduzue Larratxoko auzotarrekin irtenbide bat aztertzeko asmorik?

• ¿Tienen intención de estudiar una solución con los vecinos y vecinas de Larratxo?

Donostian, 2022ko otsailaren 4an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Donostian, 2022ko otsailaren 4an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Pilar Arana andreak eta Zigor Etxeburua jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto la Sra. Arana Pérez y el Sr. Etxeburua Urbizu, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:43an Marta Huarte andrea bertaratu da)*

*(A las 12:43 h se incorpora a la sesión la Sra. Huarte Paño)*

* * *

Jarraian, deialdiak gaiak aztertzeko aurreikusi duen hurrenkerari ekin diote berriro.

A continuación, se retoma el orden de tratamiento de los asuntos previsto en la convocatoria.

* * *

**2.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Aguirre Miramon kaleko norabidea aldatzeari buruzkoa.**

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el cambio de dirección de la calle**

**Aguirre Miramón.**

Jorge Mota jaunak honako interpelazio hau aurkeztu du:

“Mikel Lezama Zubeldia Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, interpelazio hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin, Agirre Miramon kaleko noranzkoa aldatzea dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Une hauetan aztertzen ari da Erdialdea autoetarako ixteko aukera, baina plan horretan ez da sartzen erdialde horren ondoan dagoen Gros auzoa. Auzo horrek baditu jada aparkaleku eta trafiko-arazo larriak, denok dakigunez.

Duela ia 10 urte onartu zen Peña eta Goñi kalea oinezkoentzat jartzea, eta Ramón y Cajal kalea, 30eko Gune bihurtzea.

Auzoko trafikoetan gehiago esku hartuko bagenu, eta Agirre Miramon kalearen noranzkoa aldatuko bagenu (kale horretan egiten diren joan-etorriek aparkalekua bilatzea dute helburu edo, bestela, bertan dagoen aparkaleku pribatua erabiltzea), hiribide aldera joateko Santa Katalina zubia zeharkatzeko ibilbidea aurreztuko genuke (eta, hala, ibilgailua gutxiago erabiliko litzateke), nahikoa bailitzateke Ramón María Lilí pasealekutik, Peña y Goñi kaletik eta Colón pasealekutik etxe-uharteari buelta ematea (urdinez). Gaur egun, ibilbidea laukoiztu egiten da, Ramón María Lilí, Zurriola, Ramón y Cajal eta Colón pasealekutik joan behar da-eta (gorriz).

Aldaketa horrek Ramón y Cajal kalea oinezkoentzat jartzeko aukera emango liguke −kale hori Colón pasealeku aldera buelta ematen duten ibilgailuek, Erdialdera itzultzeko, baino ez dute erabiltzen. Horrek, gaur egun, inbutu-moduko bat sortzen du Groseko trafikoan; eta, gainera, ez dugu ahaztu behar bira hurrengo etxe-uhartean egin daitekeela, Lapurdi plazan, ibilbide bera egiteko−.

Hori dela-eta, Talde Popularrak honako interpelazio hau egiten du:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez du Gobernu Taldeak noranzko-aldaketa egin kale horretan?

2. Aurreikusten al du Gobernu Taldeak aldaketa

El Sr. Mota Iglesias presenta la siguiente interpelación:

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, la siguiente Interpelación, al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, sobre el cambio de dirección de la calle Aguirre Miramón.

JUSTIFICACIÓN

El cierre de la zona centro al coche en el que se está trabajando en este momento, no contempla el barrio de Gros, adyacente al centro, y que actualmente ya tiene un grave problema de aparcamiento y tráfico, por todos conocido.

Hace casi 10 años fue aprobado la peatonalización la calle Peña y Goñi y el convertir la calle Ramón y Cajal en zona 30.

Si diéramos una vuelta de tuerca más en los tráficos del barrio, y cambiáramos la dirección actual de la Calle Aguirre Miramón, cuyo tránsito único corresponde a la búsqueda de aparcamiento o a la utilización del parking privado situado en dicha calle, ahorraríamos trayecto de uso del vehículo para cruzar el puente de Santa Catalina hacia la Avenida, ya que bastaría con dar la vuelta a la manzana por Ramón María Lili, Peña y Goñi y Paseo Colón (en azul). Actualmente, el trayecto se multiplica por cuatro, teniendo que ir a Ramón María Lili, Zurriola, Ramón y Cajal y Paseo Colón. (en rojo).

Este cambio nos permitiría peatonalizar la calle Ramón y Cajal, cuyo transito se reduce a los coches que van a dar la vuelta hacia Paseo Colón para poder volver al centro, que actualmente hace un efecto embudo del tráfico de gros, cuando además se puede hacer el giro en la siguiente manzana, en la plaza Lapurdi para hacer el mismo recurrido.

Teniendo en cuenta todo esto, es por lo que el Grupo Popular, presenta la siguiente

INTERPELACION

1. ¿Cuáles son las razones por las que el Equipo de Gobierno no ha realizado el cambio de dirección en dicha calle?

2. ¿Tiene el equipo de gobierno previsto realizar

hori egitea?

3. Aurreikusten al du Gobernu Taldeak Ramón y Cajal kalea oinezkoentzat jartzea?

4. Hala bada, noiz?

5. Hala ez bada, zergatik?

6. Gobernu Taldeak planifikatu al du aldaketarik Groseko trafikoetan, Erdialdea trafikoari ixtearen ondorioz?

Donostia, 2022ko otsailaren 3a

Mikel Lezama Zubeldia,
Udal Talde Popularreko zinegotzia"

ese cambio?

3. ¿Tiene el Equipo de Gobierno previsto peatonalizar la calle Ramón y Cajal?

4. En caso afirmativo, ¿cuándo?

5. En caso negativo, ¿cuáles son los motivos?

6. ¿Tiene el Equipo de Gobierno planeado cambios en los tráficos de Gros a consecuencia del cierre al tráfico de la zona centro?

En San Sebastián, a 3 de febrero de 2022

Mikel Lezama Zubeldia
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Pilar Arana andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto la Sra. Arana Pérez y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:48an Zigor Etxeburua jauna bileratik irten da)*

*(A las 12:48 se retira el Sr. Etxeburua Urbizu)*

**3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, lurperatutako edukiontziei buruz.**

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre los contendedores soterrados.**

Jorge Mota jaunak honako interpelazio hau aurkeztu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldiak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta lurrazpiko edukiontzien gaineko INTERPELAZIO hau egin behar dio alkateari, Eneko Goia Lasori, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Hirian diren lurrazpiko edukiontziak, oro har, toki faltagatik edo beste arrazoi batzuengatik kale gainean jartzea zaila den lekuetan daude lurpean jarrita. Oso gutxi dira horrelakoak, gaur egun hiri-paisaia osatzen duten era guztietako 4.500 edukiontzien aldean.

Udaleko Talde Popularrak, ordea, uste du hiriko toki gehiagotan jarri behar liratekeela lurrazpiko edukiontziak, merkataritza guneetan jartzen hasita aurrena. Izan ere, lurrazalean den edukiontzi baten ordez lurpeko edukiontzi bat jartze hutsak erakargarriago egin dezake saltoki bat. Eta ezin dugu hurbileko merkataritza sustatu nahi dugula esan eta hari zuzenean mesede egiten dion gauza bat, oso erraz egin daitekeena, ez egin; izan ere,

El Sr. Mota Iglesias presenta la siguiente interpelación:

"Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, la siguiente Interpelación, al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, sobre los contenedores soterrados.

JUSTIFICACIÓN

Por regla general, los contenedores soterrados que se reparten por la ciudad se ubican en lugares en los que resulta difícil instalar estos depósitos en plena calle, tanto por falta de espacio como por otros motivos. Son una minoría entre los cerca de 4.500 depósitos de todo tipo de residuos que forman parte del paisaje urbano en la actualidad.

Pero desde el Grupo Municipal Popular creemos que los contenedores soterrados se deberían extender a más zonas de la ciudad, empezando por las zonas comerciales. La simple sustitución de un depósito de superficie por un contenedor soterrado puede hacer más atractivo un comercio. No podemos decir que queremos potenciar el comercio de proximidad de la ciudad y no realizar este tipo de actuaciones fáciles que les ayudan

edukiontziak bata bestearen gainean pilatuta izateak ematen duten itxura ez da oso gustagarria (edukiontzi asko egoera txarrean, kolorea erabat joanda eta osasun aldetik ere biziro ondo ez direla). Lurperatutako edukiontziek, berriz, itxura hobea ematen dute, eta usain txarra ere askoz gutxiago izaten da haien inguruan.

Horiek horrela direla, hauxe da Talde Popularraren

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez ditu lurrazpiko edukiontziak hiriko merkataritza gune guztietan jartzen?

2. Gobernu Taldeak pentsatuta al dauka aldaketa hori egitea?

3. Noiz, pentsatuta baldin badu, eta non?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik ez?

5. Zenbat diru kostatuko litzaioke Udalari edukiontzi sistema hori jartzea?

6. Urbanizazio berrietan lurrazpiko edukiontzi sistema hori jartzea pentsatzen al du?

Donostian, 2022ko otsailaren 3an

Mikel Lezama Zubeldia
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia”

Jorge Mota jaunak eta Miguel Angel Diez jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

* * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak erabaki du 4. eta 8. gaiak batera aztertzea.

* * *

**4.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko bidegorriei buruz.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

directamente: la imagen que dan los contenedores apelotonados, muchos de ellos en mal estado y descoloridos y en muchos casos poco salubres, no es agradable, mientras que la presencia de contenedores soterrados mejora la imagen y los olores se reducen muy considerablemente.

Teniendo en cuenta todo esto, es por lo que el Grupo Popular, presenta la siguiente

INTERPELACION

1. ¿Cuáles son las razones por las que el Equipo de Gobierno no extiende los contenedores soterrados a todas las zonas comerciales de la ciudad?

2. ¿Tiene el equipo de gobierno previsto realizar ese cambio?

3. En caso afirmativo, ¿cuándo? Y ¿dónde?

4. En caso negativo, ¿cuáles son los motivos?

5. ¿Qué cuantía económica supone al Ayuntamiento la instalación de este sistema de contenedores?

6. ¿Tiene previsto instalar este sistema de contenedores soterrados en los desarrollos de las nuevas zonas urbanizables?

En San Sebastián, a 3 de febrero de 2022

Mikel Lezama Zubeldia
Concejal del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto los Sres. Mota Iglesias y Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

* * *

Con la conformidad de todos los y las presentes, el Presidente decide tratar los asuntos n.º 4 y n.º 8 de forma conjunta.

* * *

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre los bidegorris de la ciudad.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, hiriko bidegorriei buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

OCUk duela gutxi argitara eman duen analisi baten arabera, Donostiak hainbat posizio galdu ditu bidegorri-sare onenak dituzten hirien artean. Aurreko txostena 2013an egin zuten, eta, ordutik, hirugarren postutik bosgarrenera igaro gara.

Puntuazio txarra ez bada ere, txostenak dio oztopoak murriztu behar direla, zorua hobetu eta sarea hiriaren kanpoaldera ere zabaldu.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gure bidegorriek zergatik ez dute mantendu orain dela gutxira arte zeukaten maila?

2. Ba al zuen gobernu-taldeak txosten horren eta haren ondorioen berri?

3. Zer egiteko asmoa duzue?

4. Zuen ustez, zer alderdi ez dira zaindu Donostiako bidegorri-sarea bi puntu jaitsi dadin?

5. Hobetuko al duzue zorua?

6. Ba al duzue sarea auzo guztietara zabaltzeko asmorik? Noiz?

7. Nola murriztuko dituzte txostenean aipatzen diren oztopoak eta estuguneak?

Donostia, 2022ko otsailaren 4a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre los bidegorris de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Se ha publicado recientemente un análisis de la OCU en el que señala que los bidegorris de San Sebastián han perdido posiciones entre las ciudades con mejores redes ciclistas. Hemos pasado del tercer puesto al quinto, desde el informe anterior de 2013.

Si bien no es una mala puntuación, el informa señala que hay que reducir obstáculos, mejorar el firme y extenderlos a la periferia.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que nuestros bidegorris no mantienen el nivel que tenían hasta hace bien poco?

2. ¿Conocía el equipo de gobierno este informe y las conclusiones del mismo?

3. ¿Qué piensan hacer al respecto?

4. ¿Qué aspectos consideran que se han descuidado para que la red ciclista de San Sebastián haya descendido dos puntos?

5. ¿Van a mejorar el firme?

6. ¿Tienen intención de extenderlo a todos los barrios?¿Cuándo?

7. ¿Cómo van a reducir los obstáculos y estrechamientos a los que se refiere el informe?

En San Sebastián, a 4 de febrero de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

**Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, bidegorrien egoerari buruzkoa.**

Marta Huarte andreak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Marta Huarte Pañok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren

**Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la situación de los bidegorris.**

La Sra. Huarte Paño da por leída la siguiente interpelación:

“Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del

134. artikulua oinarri, bidegorrien egoerari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkari Pilar Aranari, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiarrek bidegorriei buruz duten irudipenak bi alde dituela esan daiteke. Alde batetik, herritarrak pozik daude bidegorri-sare bat izatearekin, eta baliagarria dela iruditzen zaie; bestetik, sare hori erabiltzeak dakartzan arriskuez ohartzen dira.

Izan ere, kexa isil eta orokor bat dago Donostiako bidegorri-sarearen egoerari, mantentzeari, erabilerari eta bilakaerari buruz.

Batetik, pertsonekin eta arau orokorrak errespetatzearekin lotutako erreklamazioak daude. Bidegorrien erabiltzaileak bestelako jarrera bat eskatzen diete oinezkoei, eta oinezkoek, berriz, bidegorri-sarearen zenbait erabiltzailek hura desegoki erabiltzen dutela salatzen dute.

Bestalde, bidegorri-sarearen egoerarekin lotutako kexak daude. Hain zuzen ere, aurreko urteetan erreklamazio ugari erregistratu dira, eta oraindik ere erregistratzen dira. Honako hauei buruzkoak dira erreklamazioak:

• Egoera txarra: sakanguneak, zuloak, asfalto falta, desnibelak, konexiorik gabeko tarteak.

• Argiztapen eta seinaleztapen falta hainbat tartetan.

• Gutxieneko zabalera ez betetzea hainbat puntutan.

• Autoentzako aparkalekuekin gutxieneko distantziarik ez gordetzea.

• Auto eta autobusen trafikoarekin gutxieneko distantziarik ez izatea, eta hesi fisikorik ez egotea. Izan ere, errepidea hurbil dagoenez, istripuak izateko arriskua dago.

Adierazle gehigarri gisa, duela gutxi OCUk txosten bat argitaratu du estatuko hainbat hiritako bizikletentzako sareen egoerari eta bilakaerari buruz. Txostenak balorazio ona egiten du Donostiaz, baina 2013tik geldialdi bat egon dela nabarmentzen du, eta, horregatik, atzera egin duela estatuko hirien rankingean. Posizio-galera horrek adierazten du azken urteetan ahalegin txikiagoa egin dela eta zenbait alderdi ez direla

vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Concejala delegada de Movilidad, Pilar Arana, para su tratamiento en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS, relativa a la situación de los bidegorris.

JUSTIFICACIÓN

La percepción que los ciudadanos de Donostia tienen respecto a los bidegorris se puede decir que tiene dos caras. Por un lado, los ciudadanos están satisfechos de disponer de una red de bidegorris que consideran útil, y por otro lado, perciben los riesgos que conlleva su utilización.

Y es que existe una queja silenciosa y generalizada respecto al estado, mantenimiento, uso y evolución de la red de bidegorris en Donostia.

Por un lado hay reclamaciones relacionadas con las personas y el respeto a las normas generales. Tanto de los usuarios del bidegorri, que demandan otro tipo de actitudes de los peatones, como de estos que denuncian un uso indebido por parte de algunos usuarios de la red de bidegorris.

Por otro lado, hay quejas relacionadas con el estado de la red de bidegorris. En este sentido, se han venido registrando en años anteriores y se siguen registrando, múltiples reclamaciones. Estas son referidas a:

• el mal estado: baches, agujeros, falta de asfalto, desniveles, desconexiones de tramos,

• la falta de iluminación y señalización en diferentes tramos,

• el incumplimiento de la anchura mínima en diferentes puntos,

• la no existencia de una distancia mínima con aparcamientos de coches

• la no existencia de una distancia mínima con el tráfico de turismos y autobuses, y no existencia de barreras físicas, resultando en situaciones de peligrosidad debido a la cercanía de la carretera y posibles accidentes.

Como indicador adicional, en fecha reciente se ha publicado un informe de la OCU relativo a la situación y evolución de las redes para bicicletas en diferentes ciudades del Estado. El informe refleja una valoración favorable para Donostia, pero también destaca un estancamiento desde 2013 y por ello, sufre un retroceso en el ranking de ciudades en el Estado. Esta pérdida de posiciones es una señal indicadora de la menor

zaindu. Gomendioen zerrenda ez da laburra, eta, askotan, bat dator herritarren kexekin. Zerrenda horretan honako hauek sartzen dira: oztopoak eta estuguneak murriztea, bide-zorua hobetzea, sarea kanpoaldera zabaltzea eta bidegorrien dentsitatea handitzea, eta erdialdeko auzoetara eta biztanle-dentsitate handiko kanpoaldeko eremuetara ere iristea. Balorazioak "nahiko juxtu" bat ematen du, 5etik 3, ebaluatutako 7 alderdietatik 5etan:

- Sare osoa: 3/5
- Sare jarraitua: 3/5
- Sare uniformea: 3/5
- Sare hautemangarria: 3/5
- Sare sarria: 3/5
- Zuzeneko sarea: 4/5
- Bide nagusietatik igarotzen den sarea: 4/5

Txosten horretan badira beste zenbait aipamen bizikletak alokatzeko Dbizi zerbitzuari buruz, eta merezi du horri buruz gogoeta egitea; hain zuzen ere, "garesti samarra" dela dio.

Kontuan hartuta hirian emisiorik eta zaratarik gabeko eremuak ezartzeko planak, horrek ibilgailuen sarbideari ekarriko dizkion mugak, OCUren azken txostena eta herritarrek egindako erreklamazioak, uste dugu Donostiak erritmoa aldatu behar duela eta bizikleta garraiobide jasangarri gisa erabiltzeko kulturaren inguruko kontzientzia sustatu behar duela.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez du areagotzen bizikleta erabiltzeko eta herritarrak haren erabilerari eta elkarren arteko errespetuari buruz sentsibilizatzeko kanpaina?

2. Udal Gobernuak zergatik ez ditu jasotzen herritarrek bidegorriei buruz egiten dituzten kexak eta horiei denbora egokian erantzuten?

3. Zergatik ari dira hedatzen segurtasun-gabeziak dituzten bidegorriak?

4. Zergatik ez dira oztopo fisikoak jartzen bidegorriak eta auto eta autobusen erreiak bereizteko?

5. Udal Gobernuak zergatik jaitsi du bidegorri-sarea hobetzeko erritmoa 2013. urtearekin alderatuz, OCU txostenak adierazten duenez?

Donostia, 2022ko otsailaren 4a

intensidad en el esfuerzo realizado en los últimos años, y del descuido en algunos aspectos. La lista de recomendaciones no es corta y en muchos puntos viene a coincidir con las quejas de los ciudadanos. En la lista de recomendaciones se incluye la reducción de obstáculos y estrechamientos, mejora del firme, intensificar la extensión de la red a la periferia, y aumentar la densidad de bidegorris, cubriendo tanto los barrios céntricos como las áreas periféricas densamente pobladas. La valoración da un "aprobado justo", un 3 sobre 5, en 5 aspectos de los 7 evaluados:

- red completa: 3/5
- red continua: 3/5
- red uniforme: 3/5
- red reconocible: 3/5
- red tupida: 3/5
- red directa : 4/5
- red que pase por vías principales: 4/5

En dicho informe también hay referencias que merecen una reflexión, en cuanto al servicio de alquiler de bicicletas Dbizi, indicando que es "un poco caro".

Teniendo en cuenta los actuales planes para la ciudad para establecer zonas libres de emisiones y ruidos, las limitaciones que supondrá en el acceso de vehículos, el reciente informe de OCU y las reclamaciones realizadas por la ciudadanía, creemos que Donostia necesita cambiar de ritmo y fomentar la concienciación respecto a la cultura del uso de la bicicleta como medio de transporte sostenible.

Por lo expuesto presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no intensifica la campaña de cultura de uso de la bicicleta y sensibilización en cuanto al uso y respeto mutuo entre los ciudadanos?

2. Por que motivo el Gobierno Municipal no recoge y responde en un tiempo adecuado a las quejas de los ciudadanos respecto a los bidegorris?

3. ¿Por que se están desplegando bidegorris con deficiencias de seguridad?

4. ¿Cual es la razón por la que que no se instalan barreras físicas que separen los bidegorris de los carriles para coches y autobuses ?

5. ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal ha bajado el ritmo de mejora en la red de bidegorris respecto a 2013, según indica el informe OCU?

Donostia, a 4 de Febrero de 2022

Sinatua: Marta Huarte Paño
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”

Fdo.: Marta Huarte Paño
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”

Pilar Arana andreak, Jorge Mota jaunak eta Marta Huarte andreak hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en estos puntos la Sra. Arana Pérez, el Sr. Mota Iglesias y la Sra. Huarte Paño, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:53an Haizea Garay bileratik irten da)*

*(A las 12:53 h se retira la Sra. Garay Gallastegui)*

*(4. eta 8. gaiak batera aztertu ondoren, Marta Huarte andrea bileratik joan da)*

*(La Sra Huarte Paño abandona la sesión después de tratarse conjuntamente los asuntos n.º 4 y n.º 8)*

**5.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, 5. eta 40. autobus-lineetako aldaketei buruzkoa.**

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre los cambios en las líneas de autobuses 5 y 40.**

Jorge Mota jaunak irakurritzat eman du interpelazio hau:

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Talde Popularreko zinegotzi Mikel Lezama Zubeldiak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta 5. eta 40. autobus ibilbideetako aldaketen gaineko INTERPELAZIO hau egin behar dio alkateari, Eneko Goia Lasori, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

“Mikel Lezama Zubeldia, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, la siguiente Interpelación, al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, sobre los cambios en las líneas de autobuses 5 y 40.

JUSTIFIKAZIOA

Diario Vasco egunkarian irakurri dugu hilaren 7tik aurrera aldatu egingo dituztela 5. lineako (Benta Berri) eta 40.eko (Gros-Antigua-Igara) zerbitzuak. Benta Berri-Zuatzu linearen zerbitzua Zuatzuko biribilgunean bukatuko da, ez da industrialdearen amaieraraino ailegatuko eta, Zuatzu-Ulia eta Zuatzu-Urola geralekuak biribilgunera aldatuko dituzte. Gainera, lanegunetan, Zarautz etorbideko geralekuak Tolosa hiribidean izaten dira 18:00etatik 20:00etara bitartean, hiribide horretan egunero izaten diren buxadurak saihesteko. Agi denean, 6 hilabetean izango dira "doikuntza" horiek.

Zuatzun barruan geralekurik ez izateak endredo handia dakarkie inguru hartako langileei eta industrialdearen amaieran diren instalazio medikoetara joaten diren pertsonei.

Era berean, Dbuseko erabiltzaileentzat ere nahasmendua da geraleku batzuk Tolosa hiribidetik Zarautz hiribidera pasatzea, lehen ere trafiko handia baita han eta oraindik eta gehiago handitzeak arazoa gaiztotu besterik ez du egiten

JUSTIFICACIÓN

Leemos en el Diario Vasco que a partir del lunes 7 de frebrero se modifican los servicios de las líneas 5 Bentaberri y 40 Gros-Antiguo-Igara. La línea 5 BentaBerri-Zuatzu solo hará servicio hasta la rotonda de Zuatzu sin entrar hasta el final del polígono. De modo que las paradas Zuatzu-Ulia y Zuatzu-Urola se trasladan a la rotonda. Además, los días laborables, entre las 18 y las 20 h, las paradas de la avenida de Zarautz se trasladan a la avenida de Tolosa con el fin de evitar los atascos diarios que se producen en esta avenida. Estos “ajustes” estarán en vigor durante 6 meses.

